


ADARRA

Pedagogi Erakundea

Mitxel Labeguerie, 2-3º Dpto3
48005 - Bilbao

944153795 www.adarra.org



Neska eta emakumeen aurkako tratu txarrak prebenitzeari buruzko jardunaldien inguruko ondorioak
(Bilbo, 2007ko maiatzak 7, 8 eta 9)

Indarkeria eta indarkeriarik eza ikasi egiten dira. Pertsonak ezartzen ditugun harreman-motak aldatzeko tresnaren jabe gara hezkuntzan.

Ikerketek adierazten dutenez, neskatila eta emakumeen aurkako indarkeriak ez du zerikusirik ez gizarte-klasearekin, ezta ikasketa-mailarekin, mendekotasunarekin, askatasun ekonomikoarekin edo adinarekin ere. Gainera, ez da bakarrik familiako arazoa (ez da *etxeko indarkeria*). Erakargarritasun hegemonikoko ereduarekin eta genero arteko ezberdintasunarekin lotuago dago indarkeria, eta jakin badakigu, esparru orotan eta harreman-mota ezberdinetan, bai egonkorretan zein noizbehinkakoetan, sortu eta agertzen dela.

Bere garaian eskolan hezkidetzatxertatzea oso garrantzitsua izan zen generoen arteko ezberdintasunak gaintzearen alde lan egiteko, baina gure geletan azaltzen den errealitatea adierazten digu, aurrerapenak egon arren, oraindik lortzetik oso urrun gaudela.

Mutilak gehiago erortzen dira jokabide disruptiboetan, diziplina-arazoetan, jazarpenean, gatazkak ebazteko trebetasun ezan, eta abarretan. Mutilen alde egoten jarraitzen du jolastoki, gela, laborategi eta abarretako denbora eta eremuaren banaketa. Ohikoa dugu sexu-joera ezberdineko ikasleenganako jazarpena, eta baita, neska ala mutila izateagatik, berarengandik espero den jokabide faltak eragiten duen oinazea.

Generoen arteko berdintasuneko harremanak lortu dituen gizarte, kultura edo gizarte-talderik ez dagoela eta

ikastetxeak errealitate horren isla direla jakinda, uste dugu eskolak, bere testuinguruan, genero-indarkeriako egoerak galarazteaz gain, ikasleei tresnak helarazi eta prebentzioari begirako ekintzak sortu eta eragina izan behar duela.

Azken urteotan, lan garrantzitsua egin da eredu maskulino eta femeninoak aztertzeko, baina oso gutxi hausnartu da erakargarritasun-ereduez (berdintasunezkoak ez diren eredu maskulino eta femenino horien iraupenarekin zerikusi handia dutenak).

Erakargarritasuna eta maitasuna irrazionalak direla, eta desira horren aurka ezin dela borrokatu geureganatu dugu, eta baita maitemintzekotan, saihestezina dela erokeriak egitea ere, maitasuna itsua delako. Amodio- eta sexu-harremanak eta sentimenduak, berezkoa, natural eta ezinbestekoa den zerbait dela ulertzen da, eta horregatik, zaila da harremanetan eta indarkerian bertan ematen diren ezberdintasunak gainditzea.

Gizartearen egungo egoera aldatu egin da, ez du ezertan zerikusirik duela urte batzuk hezkidetza eskoletan eta institutuetan lantzen hasi zenean zegoenarekin; beraz, beharrezkoa da gertatzen ari denaren berri izatea eta garai berrien araberako proposamenak egitea, erakargarritasun-ereduei garrantzia emanez.

Nesken eta mutilen arteko harremanak

Eskolan ezer gutxi jakiten da ikasleen arteko harremanez edo elkarren arteko erakargarritasuna zertan oinarritzen duten. Nesken artean mutil "andrekoi" edo "harroek" arrakasta

handiagoa dutela dakigu, eta jokabide berbera duten neskei buruz, berriz, iritzi negatiboa izaten dela.

Harremanetako bikotekide izan dituen neskei buruz gaizki esaka entzun ohi zaie mutilei, eta batzuetan, neska horien lagunak ere iritzi negatibo horien alde azaltzen dira. Hala ere, genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko oso garrantzitsua izan daiteke lagunaren elkartasun-harremanak eta elkarren arteko laguntza.



Zintzoak, ikasle onak eta nesken lagunak izaten diren mutiletaz aspergarriak direla irizten da eta neskentzat ez dira erakargarriak izaten. Gerta daiteke, halaber, hainbat harreman-klase izan nahi ez dituzten neskek kritikatuak izatea, eta bere lagunak itxiak direla esatea.

"Teorian" positibotzat jotzen ez diren jokabideak ("astakiloak", "harroputzak", "kexatiak", "larderiatsuak"...), indartu egiten dituzte mutilekin, helduek, ikaskideek, komunikabideek, ahoz zein ahozkoak ez diren keinuez, eta film eta abestietako heroiak izaten dira, erakargarritasun-eredu bilakatu.

Ez dira indartzen, ezta erakargarri gisa azaltzen ere, mutil langile, arduratsu, zintzo, laguntzaile eta parte-hartzaileak..., eta berdin neskekin, hauei ez baitzaie aurrea hartzera, berariazko iritzia edukitzera, bihurri izatera, eta abarrera bultzatzen.



Gure ikasleek eredu hegemonikoen inguruko hainbat usteren arabera sozializatzen jarraitzen dute, arruntena, logikoena eta, ezberdintasuna eta indarkeria sortzen ez duten bestelako ereduak aurkitzea ezinezkoa balitz bezala.

Eskolan zer egin

Berdintasunezko hezkuntza-praktikak sustatu behar ditu eskolak; ikasleak, senitartekoak, eskola, berdinen taldeak sozializatzeko eragile ezberdinen artean berdintasunezko elkarreraginak bultzatu; botere eta generoen arteko harremanetan aldaketak sustatu; afektibitate-harreman zintzoak indartu; ikasleekin emakumezko eta gizonezko nortasun berriak landu; emakumeen arteko elkartasuna sustatu, etab.

Lan hau aurrera eraman ahal izateko, eskolak ahots guztiak erabili behar ditu: ikasleenak, irakasleenak, familienak eta ikasleekin harremanetan dauden bestelako gizarte-eragileak, bestela, ezinezkoa litzateke.

Hedabide eta teknologia berriei arreta berezia eskaini behar zaie, nerabeek antzekoekin izaten dituzten harremanak nolakoak diren eta zein balioetan mugitzen diren, etab. jakin.

Indarkeriari xarma guztia kendu eta berdintasuna erakargarritasunaz blaitu behar dugu. Ikasleekin batera, erakargarritasun- eta hautaketa-ereduak aztertu. Zernolako pertsonen geureganatzen gaituzten eta azkenean zein aukeratzen dugun, kontuan izanda bizi denaz ikasten dela eta, askotan, ikasten denak ez duela etorkizunean harreman hobeak izaten laguntzen, indarkeriazko hainbat jokabide barneratu eta normalizat jotzera heltzen baita.

Eztabaidatu eta hausnartzeko eremu komunitarioak sortu behar dira, indarkeriazko jokabideak identifikatzen eta inori

mesede egiten ez dioten babesak agerian uzten ikasteko eremuak, eremu pluralak, askotarikoak, elkartasun-eremuak, eta baita segurtasunezko eremuak ere, hau da, inork eraso jaso badu bere burua ziur sentiaraziko dion eremua, bere ideiak planteatu eta argudioekin defenda ditzan.

Proposamen praktikoak

Erronka handia da, baina egin eta sistematiza ditzakegun gauza asko daude: literatur solasaldietan eta eztabaidetan lan egin, amodio eta harremani buruzko istorioak idatzi eta aztertu, modan dauden abestien letrak aztertu, kasuak aztertu, teoriak aztertu, aldizkarietako sentimenduen aholkularitzak aztertu, iragarkiek, teleailek, filmek, eta abarrek sustatzen dituzten ereduak aztertu.

Beharrezkotzat joz gero, mutilen eta nesken aparteko taldetan hainbat gairen inguruan lan egin, eztabaidatu eta hausnar daiteke, eta ondoren, bi taldeetako ikuspegiak, iritziak, etab. alderatu. Halaber, indarkeriari buruz hausnartzeko neska-mutil, guraso, irakasle eta abarren taldeak ere antola daitezke.

Indarkeriazko edo indarkeriaren aldeko jokabideak, duten garrantziaren arabera lantzea (gonak altxatzea ez da mutilen jolasa, ezta neska bat "itxia" dela esatea, edo berarekin nolabaiteko harreman izan duen neska batez gaizki hitz egiten duten mutilaren alde azaltzea ere...).

Gaiak hezkuntza-erkidegoan lantzea (generoko indarkeriaren aurkako komunitatearen araua lantzea, neska-mutilekiko solasaldiak, baterako prestakuntza...).

Azken batez, eskolak sistematikoki eta egiten ari dena jakinda esku har dezake, gizartea eraldatzeko eragile egokia izan dadin eta generoen arteko ezberdintasuna gainditu eta indarkeria errotik desagerrarazteko. Eskola ezin da inoiz, bidegabeko egoera hauek guztiak errepikatzen dituen eragile izan.



Jakin badakigu, oro har, aldaketaren aurkako joera indartsua dela. Gainera, elkartasuna, ahalegina, erantzukizuna, elkarrizketa, hobetzeko partekatzea bezalako balioak oso onartuta ez daudela ikusten dugu, baina ziur gaude generoko indarkeria errotik desagerrarazteak, hezkuntzaren helburu nagusietako bat izan behar duela.

Bilbo, 2007ko azaroa

ADARRA PEDAGOGI ERAKUNDEA